



Eta Karmele?

Samara Velte

Hitzaurrea: Ainhoa Alberdi - Iraia Elias

Hitzostea: Oier Guillan

Eta Karmele?

Samara Velte

Izenburua: Eta Karnele?

Lehen edizioa: 2012ko abendua



edizio honena **edol!**



testuarena Samara Velte



hitzaurrearena

Ainhoa Alberdi - Iraia Elias



hitzostearena Oier Guillan



azaleko irudiarena Idoia Beratarbide



barruko argazkiarena Joseba Barrenetxea

argitaletxea **edol!**

P.K. 618 - 20080 Donostia - Gipuzkoa

argitaletxeaedo@gmail.com

www.argitaletxeaedo.org

Diseinua: **edol!**

Inprimaketa: Printhaus, SL. 48004 Bilbo

ISBN: 978-84-940489-3-7

Lege gordailua: BI-2043-2012

Eta Karmele?

Samara Velte

Hitzaurrea:
Ainhoa Alberdi - Iraia Elias

Hitzostea:
Oier Guillan



Xortak

Hitzaurrea

Ainhoa Alberdi Gisasola

Eta Karmele, bizitzak bere magia agerian uzten duen bidaia berezi horietako bat izan da. Ia-ia ausaz sortu zen. Barkatu, ez da egia: sortu behar zuelako sortu zen. Geldirik egoten ez garenok konpromiso ugari hartzen ditugu, eta bat-batean, nola jakin gabe, denbora gainera etortzen zaigu, eta gure erantzukizunei aurre egin behar nola edo hala. *Karmele*-rena ere halaxe izan zen: Usurbilgo Udalarari Mugikortasun Egunerako hitza emana nion, zerbait egingo nuela helduentzat, eta hamar egun falta zirela ez nuen ezer eskuartean. Iraiari proposatu nion zerbait egitea, eta berak baietz. Eta Samararen idazteko abilezia ezagutu-ta, berarengana jo genuen, zerbait idatziko ote zigun, eta hemen hasi zen gure bidaia: hiru emakume, existitzen ez zen itsasontzi bat norabait porturatu nahian... Eta sortu zen itsasontzia, eta ez nolana hikoia; lehenengo portuan hogei minututxo egin zituen, Usurbilen, gero pixka bat luzatu zuen

egonaldia eta, Zarauzko Udalaren bitartez, emakumearen aurkako indarkeriaren egunean, Euskalduna tabernan porturatu zen bigarrenez. Harrezkeroztik, Euskal Herriko hainbat herritan porturatu da; Bartzelonako Euskal Etxera ere iritsi zen. Beti erantzun ona eman digu publikoak eta gure egonaldiak ez du inor axolagabe utzi, eta hori antzerkilari batentzat gauza handia da.

Plazerez egin izan dut emanaldi bakoitza. Emakume batek idatzitako antzerkia, bi emakumek taularatua... Emetasunez beteriko bidaia izan da, eta gustuko dut energia hori sentitzea, are gehiago energia hori munduan zabaltzea.

Goza ezazue beraz eskuartean duzuen bixi eder honekin!

Iraia Elias

Bolantea, mapa eta gutuna. Horixe sartu genuen maletan, Karmeleren zain abiatzeko. Ez genituen maletak luzerako egin; pare bat geldialdi, eta etxera. Horixe zen hasierako ibilbidea. Baina gustatu egin zitzaigun esperientzia, eta Karmeleren zain denbora gehiago geratzea erabaki genuen. Hortik aurrera, hego haizeak jota bezala, bidaia eder bat hasi genuen, hiru urteren ostean oraindik ere bukatu ez dena.

Magia kontua da agian, zortea... auskalo. Kontua da, espero gabe, espero ez genuen tokietara eta pertsonengana heldu garela. Zain egon gara antzoki, kultur etxe, gazetxe eta etxe okupatuetan. Zain, taberna, arte galeria, gaztelu eta eskolako sukaldeen. Edonon. Eta, gurekin batera, umeak, zaharrak, emakumeak, gazteak, helduak, gizonak, nerabeak. Esperotako erreakzioak eta espero ez genituenak jaso ditugu. Izan da asperrak jota bukatu aurretik alde egin

duenik, irribarre bukaezinarekin amaiera arte egon denik, obrari esanahi sakon bat aurkitzen saiatu denik, eta jolasteko gogoz gerturatu denik.

Barre algarak entzun ditugu eserlekuetatik. Isiltasuna entzun dugu.

Harritu egin dugu, eta harritu egin gaituzte.

Toki eta momentu bakoitza bakarra izanda. Isilune bakoitza, plazer bat. Ikuslearen gertutasuna, arnasa. Eta zortedunak garelara iruditzen zait, jendeak aukera eman digulako bidaiaria hau bizi, bizitakotik moldatu eta berriz ere beraiekin konpartitzeko. Ederra baita, mapa bat eta bolantea izan arren, aske bidaiatzeko aukera izatea, aldatetara irekirik.

Eta jarraituko dugu bidaiaria honetatik ikasten, jendeak nahi duen artean, bideak eta gasolina bukatzen diren artean.



Eta Karmele?

Samara Velte

Eta Karmele? 2008ko azaroaren 25ean estreinatu zen Zarauzko Euskalduna Tabernan, Kafe Torerok Emakumeekiko Indarke-riaren Aurkako Egunaren harira antolatuta. Ainhoa Alberdik eta Iraia Eliasek antzeztu zuten.

Pertsonaiak:

EMAKUME 1: Iraia Elias

EMAKUME 2: Ainhoa Alberdi

(Bi emakume sartuko dira, bakoitza bulegoko besaulki altu bati bultzaka, jira-biraka, elkar joka, kolpe bakoitzean harrituta publikoari begiraturuz. Musikak lagunduko ditu sarrerako mugimenduak. Besaulkietako baten gainean kotxe bateko bolante bat egongo da. Musika amaitzean, di-da elkartuko dituzte aulkiak, eta haietan eseriko dira, EMAKUME 2k bolantea eskuan duela. Kotxe baten barruan daude, geldirik.)

EMAKUME 1: Ederki.

EMAKUME 2: Ederki, bai.

(Isilunea.)

EMAKUME 1: Ni gustura nagon.

EMAKUME 2: Ni ere bai.

EMAKUME 1: Inora joateko presarik ba al zaukanagu?

EMAKUME 2: Ez.

EMAKUME 1: Eta zer egiten dinagu kotxe baten barruan, geldirik?

EMAKUME 2: Egon. Arazorik?

EMAKUME 1: Batere ez. Horretarako zauden kotxeak.

EMAKUME 2: Eta oinak.

EMAKUME 1: Ai!

EMAKUME 2: Zer?

EMAKUME 1: Esandako horrek gogorarazten zidan Karmelek behin esan zidala ibiltzeko eman zitzaizkigula oinak.

EMAKUME 2: Eta ipurmasailak, esertzeko, ezta?

EMAKUME 1: Tira, arlo biologikotik begirata, ipurmasailak muskuluak ditun, ibiltzerakoan zangoak errazago mugitu ahal izateko. Beraz, ipurmasailak ibiltzeko eman zitzaizkigun.

EMAKUME 2: Eman, nork?

EMAKUME 1: Nola *nork*? Norbaitek eman zizkigula uste dun, ala? (*Barrez lehertzen*) Txoro halakoa! Norbaitek hankak eman omen zizkigun! Hori dun hori, umorea!

EMAKUME 2 (*lotsatuta*): Aizan, ba Karmelek hori esan zinan.

EMAKUME 1: Bai neska, baina Karmelek gauza asko esaten dizkin. Karmeleren us-tez, oraindik biziko dinagu beste mundu gerra bat! Eta guk ez omen dinagu jakingo bizirauten orduan jakin zuten bezala. Ez horixe, guztiok hilko gara-la esaten din Karmelek, pinpirinegiak izateagatik.

EMAKUME 2 (*beldurtuta*): Zer dion baina?!

EMAKUME 1: Hi lasai egon hadi, esan dinat-eta Karmele ahobero bat dela. (*Txantxetan*) Gogoratzen al haiz behin nola esan zuen tsunami batek Euskal Herriko kosta osoa hondatuko zuela? A ze ateraldia, e, Maritxu?

EMAKUME 2, (*lasaiago, irribarre ttiki batekin*): Bai, egia dun. Karmelek gauza asko esaten dizkin, eta nahiko arraroak, gainera.

(Isilunea. EMAKUME 2 pentsakor dago. EMAKUME 1ek albotik begiratzen dio, zer pentsatzen ari ote den asmatu nahian,

lehengo ikarak itzuliko ote zaizkion beldurrez.)

EMAKUME 2: Bueno, baina azkenaldian gauza gutxiago esaten dizkin.

EMAKUME 1: Azkenaldian batere ez.

EMAKUME 2: Ezpaina handituta ekarri zue-netik, ia ezer ez.

(Isilunea. Serio daude.)

EMAKUME 1: Bueno, gauza bat bai: aurrekoan esan zinan oinak ibiltzeko eman zitzaizkigula.

EMAKUME 2: Goazen, orduan.

EMAKUME 1: Goazen ba!

(Geldirik jarraituko dute, isilik. EMAKUME 1 ezpainak margotzen hasiko da, eta EMAKUME 2 euliren bati begira.)

EMAKUME 1: Portzierto, nora joan dun?

EMAKUME 2: Nor?

EMAKUME 1: Karmele.

EMAKUME 2: Gure Karmele?

EMAKUME 1 (*ironiaz*): Ez, bosgarren pisuko Karmele.

EMAKUME 2 (*ironia harrapatu gabe*): A.

(*Isilunea.*)

EMAKUME 2: Ba al dakin gizonak eta emakumeak ez direla berdin suizidatzen?

EMAKUME 1: Zer?

EMAKUME 2: Inoiz entzun al dun emakume batek tiro egin diola bere buruari? Edo gizon batek bere zainak moztu dituela?

EMAKUME 1: Non entzun dun hori?

EMAKUME 2: Aldizkari batean.

EMAKUME 1: Aldizkari batean entzun dun?

EMAKUME 2: Zer nahi dun, telebistan irakurri dudala esatea?

EMAKUME 1: Ez, ez.

EMAKUME 2: Bueno ba.

EMAKUME 1 (*pentsakor*): Ba nik egingo nio-
nan tiro neure buruari.

EMAKUME 2: Bai, Karmelek ere horixe esan
zinan. Portzierto, etxera joan dun.

EMAKUME 1: Nor joan dun etxera?

EMAKUME 2: Karmele.

EMAKUME 1: Gure Karmele?

EMAKUME 2: Gure Karmele.

EMAKUME 1: Benetan?

EMAKUME 2: Benetan, zer?

EMAKUME 1: Etxera joan dela.

EMAKUME 2: Etxera joan dela nor?

EMAKUME 1: Karmele!

EMAKUME 2: Gure Karmele?

EMAKUME 1: Gure Karmele!

*(Isilunea. EMAKUME 1ek hasperen egin-
go du, erdi-haserre, eta EMAKUME 2k
harrituta begiratuko dio.)*

EMAKUME 1: Etxera joan dun, orduan?

EMAKUME 2 (*pazientzia berreskuratu nahian*): Bai.

EMAKUME 1: Ziur?

EMAKUME 2: Ez, ziur ez.

EMAKUME 1: Orduan, zergatik esan didan?

EMAKUME 2 (*haserre*): Ez zakinat! Hik jakin nahi huen-eta!

EMAKUME 1 (*larritzen hasita, lagunak ulertzen ez duelako*): Baina, baina... Baina horrek ez zeukan zentzurik!

EMAKUME 2 (*harrituta*): Zerk ez zaukan zentzurik?

EMAKUME 1: Karmele etxera joan izanak.

EMAKUME 2: Baina zer dion? Zergatik ez zeukan zentzurik?

EMAKUME 1: Ba, Karmeleren etxea ja ez delako bere etxea. Horrexegatik.

EMAKUME 2: Egia dun, Karmele ja ez dun bere etxean bizi.

EMAKUME 1: Bizi ez, Karmele bere etxean hil egiten dun.

EMAKUME 2: Gauero hiltzen dun.

(*Isiltasuna.*)

EMAKUME 1: Maritxu...

EMAKUME 2: Zer?

EMAKUME 1: Zertan ari haiz pentsatzen?

EMAKUME 2: Ezertan ez.

EMAKUME 1: Hori ez dun posible, ezin dun ezer ez pentsatu!

EMAKUME 2: Ba ni ez naun ezer pentsatzen ari!

EMAKUME 1: Baina *zerbait* pentsatu beharko dun ba! Seguru, konturatu gabe, milaka gauza ari zaizkinala burutik pasatzen.

EMAKUME 2: Ezetz ba, ez naizela ezer pentsatzen ari!

EMAKUME 1: Baina hori ez dun posible!

EMAKUME 2 (*haserre*): Eta zergatik pentsatu behar dinat zerbait, e? Orain pentsatzera ere behartuta al nagon? Laster zer pentsatu behar dudan ere aginduko didazue!

(Isiltasuna. EMAKUME 1ek irratia piztuko du. Euskadi Gaztea entzungo da:)

OFF (*irratia*): Gaztea bazara, hau da zure irratia. Irrati hau entzuten ari bazara, gaztea zara.

EMAKUME 2: Kendu ezan hori! Begira, kanal hau hobea dun.

(Aldatu egingo du. Sintonizaziorik gabeko burrunba entzungo da.)

EMAKUME 1: Maritxu! Gure kanta dun!

EMAKUME 2: Egia. Gogoratzen al haiz?

EMAKUME 1: Noski! Otxentaiotxoko Santa Klarak!

(Kantatzen hasiko dira.)

EMAKUME 1 eta **EMAKUME 2**: Eeeeeetzuela nahi, etzuela nahi, atian atzian etzue-

la nahi. Ganbaran bai, ganbaran baaaai. Ta jo niyon, ta jo niyon, atian atzian jo niyon! Ta jo niyon, ta jo niyon, atian atzian jo niyon! Ganbaran baaaai, ganbaran baaaai!

(EMAKUME 1ek, mugimendu teatral batez, abestia eteteko keinua egingo du, baina EMAKUME 2k kantuan jarraituko du.)

EMAKUME 2: *Etzuela nahi, etzuela nahi, atian atzian etzu...*

(EMAKUME 1ek errepikatu egingo du keinua, eta bat-batean isilduko da EMAKUME 2, lotsatuta. Berehala helduko diote berriketari berriz.)

EMAKUME 2: *Joe, otxentaiotxoko Santa Klarak... horiek ditun horiek, oroitzape-nak! Gogoratzen al haiz gau hartaz?*

EMAKUME 1: *Gogoratuko ez naun ba! Zeinen gazteak gintunan! Eta zenbat ligatzen geninan!*

EMAKUME 2: *Bai, bai! Karmelek batez ere!*

EMAKUME 1: *Gogoan dinat, bai. Gau berean bi mutilekin oheratu zunan!*

EMAKUME 2: Bai, bai! Aurrena... nola zunan bere izena? Iñigo? Iñaki? *I*-rekin hasten zela uste dinat.

(Biak pentsakor geldituko dira, gogoratu nahian: «I... I... I...». Halako batean EMAKUME1ek oihu egingo du:)

EMAKUME 1: Gotzon!

EMAKUME 2: A bai, Gotzon! Ze mutil *majua!*

EMAKUME 1: Gaixoarekin gau batean oheratu, eta ez zinan gehiago ikusi.

(Biak barrez. Halako batean seriotu egingo dira.)

EMAKUME 2: Ez, nahiago izan zinan Josu.

EMAKUME 1: Gau berean hura ere.

EMAKUME 2 (*serioago*): Jakingo balu hark nola bukatuko zuen...

(Isilunea. Azkenean irratia kendu egingo dute, oroitzapenek nazkatuta. Dezenteko tartea emango dute isilik, eta euren aurpegietan aldaketak ikusi ahal izango dira: nazka, Josuren oroi-

tzapenagatik; pixkanaka, hasperen baten bidez-edo, amore ematea, eta, azkenik, irribarre bat margotuko dute aurpegian.)

EMAKUME 1: Maritxu...

EMAKUME 2: Zer?

EMAKUME 1: Oroitzen al haiz nolakoa zunan Karmele?

EMAKUME 2: Bai. Neska ederra zunan.

EMAKUME 1: Oso. Eta oso kritikoa.

EMAKUME 2: Bai, bai. Oso kritikoa. Beti pentsatzen zuena esaten zinan.

EMAKUME 1: Bai. Eta esaten zuena, pentsatu egiten zinan.

EMAKUME 2: Ez al dun gauza bera?

EMAKUME 1: Inola ere ez! Gauza bera al dun «jaten dudana ikusten dinat» esatea, edo «ikusten dudana jaten dinat» esatea?

EMAKUME 2: A ez, ez. Jendeak ere esaten din jaten duguna garela, baina inork ez, garena jaten dugula.

EMAKUME 1: Horrek ez daukalako zentzurik. Nola esango dinате garena jaten? Zer gaitun ba?

EMAKUME 2: Zer gaitun gu? A! Bazakinat! Emakumeak gaitun!

EMAKUME 1: Eta emakumeak jan egiten al ditinagu?

EMAKUME 2: Ez ba, horregatik ez din inork esaten garena jaten dugula.

EMAKUME 1: Tira, horrek logika pixka bat ba-zeukan. Baina nik, hala ere, ez ninan esango naizena jaten dudala.

EMAKUME 2: Ez, ez, nik ere ez.

(Isilunea.)

EMAKUME 1 (*nahastuta*): Zertaz ari gintu-
nan?

EMAKUME 2: Ez naun gogoratzen.

(Isilune luzeagoa. EMAKUME 1 urduritzen hasiko da.)

EMAKUME 1: Maritxu! Esadan zerbait!

EMAKUME 2: Itxoin, zertaz ari ginen gogoratu nahian ari naun!

EMAKUME 1: Ja, baina gogoratu nahian pentsatzen hasten haizenean hitz egitea ahazten zain!

EMAKUME 2: A! Bazakinat! Karmelez ari gintunan.

EMAKUME 1: A, bai, egia.

(Isilunea.)

EMAKUME 1: Eta zer esan dinagu Karmeleri buruz?

EMAKUME 2: Beti pentsatzen zuena esaten zuela.

EMAKUME 1: Esaten zuena pentsatzen zuela esan nahiko dun.

EMAKUME 2: Ez, ez, nik esan nahi dudana esaten dinat, eta esaten dudana esan nahi dinat. Ulertzen dun?

(EMAKUME 1ek ez du ulertu, baina, sorbaldekin keinu bat egin ondoren, isilik egotea erabakiko du. Beste isilune bat.)

EMAKUME 1 (*aspertuta*): Maritxu.

EMAKUME 2: Zer?

EMAKUME 1: Mugi gaitezen pixka bat.

EMAKUME 2: Nola? Kotxea geldirik zagon.

EMAKUME 1: Ba mugi gaitezen gu.

EMAKUME 2: Kotxea hemen utzita? Agian mugitu egingo dun, edo joan.

EMAKUME 1: Egia.

(Isiltasuna.)

EMAKUME 1: Maritxu.

EMAKUME 2: Zer?

EMAKUME 1: Ba orduan, alda dezagun lekua.

EMAKUME 2: Bale ba.

EMAKUME 1: Goazen.

(Geldirik jarraitzen dute.)

EMAKUME 2: Goazen ba!

(Bat-batean gogoratu izan balira bezala, jaiki eta bestearen eserlekuaren alboan geldituko dira, zutik.)

EMAKUME 2: Orain hobeto?

EMAKUME 1: Orain hobeto, zer?

EMAKUME 2: Hi.

EMAKUME 1: Ni?

EMAKUME 2 (*ironiaz*): Ez, hire aldamenekoa.

EMAKUME 1 (*ez du harrapatu*): A...

(Isilunea. EMAKUME 1ek bere bi alboetara begiratuko du.)

EMAKUME 1: Baina nire aldamenean ez zagon inor!

EMAKUME 2: Ez? Orduan, norekin ari nindun?

EMAKUME 1: Nirekin!

EMAKUME 2: Eta zer esan behar ninan?

EMAKUME 1: Zer moduz hagoen.

EMAKUME 2: A. Ba ni ondo. Eta hi?

EMAKUME 1: Ederki.

EMAKUME 2: Ederki ba.

(Kotxetik irten dira eta giltzak barruan utzi dituzte.)

EMAKUME 2: Tira, hauek bai bista ederrak.

EMAKUME 1: Bai, bai, alde ederra zagon kotxe barrutik kotxe kanpora.

EMAKUME 2: Aizan...

EMAKUME 1: Zer?

EMAKUME 2: Eta nola sartuko gaitun? Ez zaukanagu giltzarik.

EMAKUME 1: Oraintxe atera gaitun-eta! Zertarako nahi dun berriz sartu?

EMAKUME 2: Ba, gero joan ahal izateko...
Kaka! Giltzarik gabe gauden!

*(Amorratuta, kotxeko ateari joka hasi-
ko da EMAKUME 2.)*

EMAKUME 1: Alferrik dun atea jotzea. Atea-
ren alde berean gauden biok.

EMAKUME 2: Eta zer egingo dinat sartu ahal
izateko?

EMAKUME 1: Atea jotzeak izan lezake zentzu
pixka bat... atea gu bion artean egongo
balitz. Adibidez, hi barruan bahengo,
atea jo hezake, eta nik ireki egingo ni-
nake. Baina biok alde berean gaudenez,
ba, ezin dinat sartzen utzi. Sentitzen di-
nat.

EMAKUME 2 *(larritzen hasita):* Eta zer egingo
dinagu?

EMAKUME 1 *(lasai asko, arnasa hartuz, me-
ditatzen ari denaren antzera):* Ba ni
hementxe egongo naun gaur, bihar eta,
agian, etzi ere bai.

EMAKUME 2 *(haserre):* Baina bilatu behar-

ko dinagu ba kotxean sartzeko moduren bat!

EMAKUME 1: Ba nik ez dinat sartu nahi. Hementxe geratuko naun gaur bihar eta, agian, etzi ere bai.

EMAKUME 2 (*amore emanda*): Tira, tira, ez din merezi hirekin haserretzeak.

(*Kotxeko atea arazorik gabe irekiko dute, eta sartu egingo dira berriz.*)

EMAKUME 1: Maritxu!

EMAKUME 2 (*pazientzia galduta*): Zer?

EMAKUME 1: Ai... *déjà vu* bat edukitzen ari naun...! Ja ez.

EMAKUME 2 (*harrituta*): Zer?

EMAKUME 1: Bai, *déjà vu* bat. Zerbait ja bizi duzula sentitzea!

EMAKUME 2: Ez nindunan harrituko elkarriketa hau dagoeneko izan bagenu, hemen daramagun denbora guztian... Non sartu ote dun Karmele?

EMAKUME 1: Gertu ibiliko dun honezkero.

EMAKUME 2: Nondik gertu?

EMAKUME 1: Ba, hemendik.

EMAKUME 2: Eta nola dakin hori?

EMAKUME 1: Ba etxetik joan badun, etxetik urruti egongo dun. Eta gu biok ere etxetik urruti gauden. Alegia, hirurok etxetik urruti gaudela. Beraz, elkarrengandik gertu egon beharko geniken.

EMAKUME 2: A, klaro.

(Isilunea.)

EMAKUME 1: Bueno, eta Karmele?

EMAKUME 2: Karmele, zer?

EMAKUME 1: Nola Karmele zer? Non dagoen?!

EMAKUME 2: Ba ez zakinat... egon pixka batean!

(EMAKUME 2k mapa bat aterako du, eta hari begira geldituko da, noizbehinka)

*mapari buelta eman ez, gora eta behe-
ra begira. EMAKUME 1 urduritzen hasiko
da.)*

EMAKUME 1: Zer, topatu al dun? Zein bide hartu behar dinagu?

EMAKUME 2: Ba, segun.

EMAKUME 1: Segun, zer?

EMAKUME 2: Segun non bilatu nahi dugun.

EMAKUME 1: Berdin zaidan non bilatu!

EMAKUME 2: Ba orduan ez din axola zein bide hartu behar dugun.

EMAKUME 1: Betiere *nonbaitera* iristekotan, esan nahi ninan.

EMAKUME 2: A, hori seguru! Nahikoa ibiltzen bagaitun, iritsiko gaitun norabait.

EMAKUME 1: Tira, tira, esadan ba hemen inguruan zein herri edo dauden.

EMAKUME 2: Ba, aurrera jarraituz, Napari ize-neko herrixka bat. Ezkerrera eginez, Idokorri mendia. Atzera, Ugarras baseli-

za, eta eskuinera, Berroia, Murillo eta, pixka bat harago, Murillo izeneko beste herri bat.

EMAKUME 1: Eta zer uste dun egin behar dugula?

EMAKUME 2: Tira, kontuan hartuta Karmeledozein norabidetan egon daitekeela, eta norabide guztiek puntu jakin komun bat dutela...

EMAKUME 1: Zein puntu?

EMAKUME 2: Hauxe bera. Puntu guztiek hemen egiten ditene bat.

EMAKUME 1: Beraz, Karmeledozein hona etorriko dun! Hemen itxaron besterik ez dinagu egin behar!

(Isilunea. Halako batean, zerbaitek harrituko du EMAKUME 2, eta kotxetik irtengo da urrutira begira. EMAKUME 1ek ez du ezer ikusi, baina, harrituta, lagunari jarraituko dio norabide berarean begiratzuz.)

EMAKUME 2: Nik uste dinat horko hori dela.

EMAKUME 1: Han atzeko zuhaixka hori?

EMAKUME 2: Ez, aldameneko mantxa beltza.

EMAKUME 1: Eta zer dun ba?

EMAKUME 2: Ba, mantxa beltz bat. Ez dun ikusten, ala?

EMAKUME 1: Eta Karmelet?

EMAKUME 2: Karmelet, auskalo, agian ikusi din mantxa.

EMAKUME 1: Hik ikusi al dun?

EMAKUME 2: Mantxa?

EMAKUME 1: Karmelet.

EMAKUME 2: Gure Karmelet?

EMAKUME 1: Bai.

EMAKUME 2: Ez. Nondik zabilen ba?

EMAKUME 1: Agian handik ibiliko dun.

EMAKUME 2: Orduan ikusiko zinan mantxa beltza.

EMAKUME 1: Joan egingo zunan.

EMAKUME 2: Hik uste?

EMAKUME 1: Ez zakinat.

EMAKUME 1: Uste dinat norbaitek esan didala etxera joan dela.

EMAKUME 2: Bai? Nondik atera dun hori?

EMAKUME 1: Ba... Hemen nagoenetik hirekin bakarrik hitz egin dinat, ez?

EMAKUME 2: Bai.

EMAKUME 1: Ba, orduan hik esan didan.

EMAKUME 2: Baina nik ez zakinat etxera joan den.

EMAKUME 1: Orduan ezin izan didan ezer esan. Barkatu, nahastu egin naun.

EMAKUME 2: Bai, neska. Ez dun ezer.

(Isilunea. Bat-batean, EMAKUME 1 izutu egingo da.)

EMAKUME 1: Maritxu! Eta mantxa gugana bator?

EMAKUME 2: E? Zer?

EMAKUME 1: Mantxa! Zer gertatuko dun gurgana etortzen badun, gure atzetik abiatzen badun?

EMAKUME 2: Ez zakinat...

EMAKUME 1 (*histeriko*): Ai ama, hau beldurra!

EMAKUME 2 (*are histerikoago*): Beldur haiz!?

EMAKUME 1: Beldur naun!

EMAKUME 2: Eta nork babestuko hau?

EMAKUME 1: Hik?!

EMAKUME 2: Baina ni ere beldur naun!

EMAKUME 1: Hi ere beldur haiz?

EMAKUME 2: Bai! Zer egingo dinagu?

EMAKUME 1 (*bat-batean gogoratuko da Karmelez*): Hi! Karmele babestu!

EMAKUME 2: Karmele?

EMAKUME 1: Bai, bera gu baino bakarrago zagon! Babestu egin behar dinagu, mantxa bere atzetik abiatu ez dadin!

EMAKUME 2: Egia dun, gu behintzat bi gaitun, mantxa soltero hori baino gehiago!

EMAKUME 1: Hi, baina... non zagon ba Kar-mele?

(Isilik geldituko dira, zain. EMAKUME 2 kukubilko jarriko da eta, emeki-eme-ki, aurrera eta atzera kulunkatuko da. Halako batean, EMAKUME 1 kantuan hasiko da, poliki-poliki, silaba bakoi-tza ondo ahoskatuz.)

EMAKUME 1: Sagu txiki, sagu maite, zulo-txoan gorde zaite.

EMAKUME 1 eta EMAKUME 2: Xapik ikusten bazaitu, kris-kraus eginda jango zaitu.

EMAKUME 1 (*kantuan, sufrituz bezala eta astiro ahoskatuz*): Ez nau jango...o...o...

EMAKUME 2 (*hizketan, ahots serioz*): Jango zaitu.

EMAKUME 1 (*kasurik egin gabe, kantuan,*

*sufrituz bezala eta astiro ahoskatuz):
Ez nau jangoooo...*

EMAKUME 2 (*are serioago*): Jango zaitu.

EMAKUME 1 (*haserretzen hasita, lagunari begira, hizketan, kontuak argi eta garbi esan nahi balizkio bezala*): Ez nau jango.

EMAKUME 2: Jango zaitu.

EMAKUME 1 (*erantzun azkarragoa*): Ez nau jango.

EMAKUME 2 (*jaiki eta parez pare jarriko zaio EMAKUME 1i*): Jango zaitu.

(Horrela hasiko dira, haurrak bezalaxe, elkarri erantzuteko denborarik eman gabe. EMAKUME 1ek «ez nau jango, ez nau jango, ez nau jango!», eta EMAKUME 2k «Jango zaitu, jango zaitu, jango zaitu». Azkenean, biak umeen gisa builaka hasiko dira eta kotxearen inguruan korrika amaituko dute, batak saguarena eta besteak katuarena egiten. Azkenik, biak batera, serio-serio, euren lekuetan eseriko dira berriz. Isilunea.)

EMAKUME 1: Etorriko al dun? Denbora asko zaramanagu zain.

EMAKUME 2: Bai. Ordu erdi bat, minimo.

EMAKUME 1: Hiru ordu laurden ere izango zintunan.

EMAKUME 2: Ez, ez, ordu erdi.

EMAKUME 1: Ezetz ba: hiru ordu laurden.

EMAKUME 2: Inposible. Ordu erditxo bat izan dun.

EMAKUME 1: Agian bai. Niri denbora oso luzea egiten zaidan.

EMAKUME 2: Beti izan haiz negatibo samarra, bai.

EMAKUME 1: Bai, familian denok gaitun negatiboak. Esaterako, bazaukanat 83 urteko osaba bat. Hari andrea hil zitzaionan, eta ez zaukan seme-alabarik.

EMAKUME 2: Negatibo izatearen ondorioz?

EMAKUME 1: Ez, baina diru asko zaukan. Aizan, hik zuzenbidea edo horrelako zerbait ikasi huen, ezta?

EMAKUME 2: Fisika.

EMAKUME 1: Orduan jakingo ditun legeak.
Osabaren dirutza norentzat dun?

EMAKUME 2: Ba, segun.

EMAKUME 1: Segun zer?

EMAKUME 2: Segun testamentua egin duen.

EMAKUME 1: Eta egin badin?

EMAKUME 2: Testamentuan agertzen dena-
rentzat.

EMAKUME 1: Eta bestela?

EMAKUME 2: Senideentzat, uste dinat, ger-
tuenetik hasita. Edo mojentzat. Edo..

EMAKUME 1: Edo?

EMAKUME 2: Oso berekoia al dun zuen osa-
ba?

EMAKUME 1: Bai.

EMAKUME 2: Ba igual bere ondasunak bere-
kin batera enterratzeko eskatuko din

testamentuan, faraoiek bezala. Auska-
lo.

EMAKUME 1: Ondasunak?

EMAKUME 2: Diruak-eta.

EMAKUME 1: Ba! Horiek gutxi izango ditun,
enterratuko dituzten esperientzien al-
boan.

EMAKUME 2: Egia dun. Esaten ditzen zahar bat
hiltzen den bakoitzean liburutegi bat
erretzen dela. Kasu honetan, enterratu.

EMAKUME 1: Bueno.

EMAKUME 2: Bueno?

EMAKUME 1: Ondasunak atera daitezken
gero lur azpitik.

EMAKUME 2: Atera daitezken, bai.

EMAKUME 1: Baina esperientziak ez.

EMAKUME 2: Ez, horiek ateratzeko, nahiko
lan. Hil baino lehenago atera behar. Di-
ruak-eta atera daitezken geroago ere.

EMAKUME 1: Hemendik urte batzuetara.

EMAKUME 2: Hemendik urte askotara.

EMAKUME 1: Faraoienak bezala.

EMAKUME 2: Non egongo ote gaitun gu orduan?!

EMAKUME 1: Ni, osabaren aldamenean, familiako panteoia zaukanagu eta.

EMAKUME 2: Ederki ba.

EMAKUME 1: Ederki, bai.

EMAKUME 1: Ba, badakin zer esaten zuen beti gure osabak?

EMAKUME 2: Diru gehiago nahi zuela.

EMAKUME 1: Ez. Edo bai. Baina ez dinat hori esan nahi. Pentsatzeak betetzen ziola existentzia.

EMAKUME 2: Hori txorakeria bat dun.

EMAKUME 1: Ba Descartesek halaxe esaten ziran: «Pentsatzen dut, beraz, banaiz».

EMAKUME 2: Eta zuhaitzak?

EMAKUME 1: Zuhaitzak zer?

EMAKUME 2: Zuhaitzek pentsatzen al dute? Zeren ez badute pentsatzen, ez ditun existitzen. Ezta?

EMAKUME 1: Ba ez zakinat, pentsatuko ditenez bait.

EMAKUME 2: Nola pentsatuko du zuhaitz batek? E? Zer uste dun pentsatuko duela bi mila urteko olibondo batek?

(Isilik geldituko dira, nazka aurpegiz, zuhaitzak zer pentsatuko lukeen pentsatzen.)

EMAKUME 1: Buf... Nik ez niken olibondo bat izan nahiko.

EMAKUME 2: Ez, nik ere ez.

(Isilunea. EMAKUME1, pentsakor.)

EMAKUME 1: Egia esan, gure historia emozioak pizteko gai diren gorputzez gabetua zagon.

EMAKUME 2: E?

EMAKUME 1: Zergatik esaten zuen Descartsek hori? Deskartez, beste ezerk ere ba-

lio ez ziolako? Zergatik ez zuen esaten, «maite dut, beraz, banaiz», edo «ukitzen dut, beraz, banaiz»?

(Dantzan hasiko dira, ukimenarekin jolasean. Hasieran musika goxoa izango da, eta laztanak egingo dizkionte elkarri, musikarekin bat. Baina, bat-batean, argi gorriak edo flash batek argiztatuko ditu, eta, musika gaiztoztzen doan neurrian, pertsonaien mugimenduak ere zakartzen joango dira, borrokan, biolentziazko eszena bihurtu arte. Bat-batean, musika bukatuta koan, pertsonaiak ere gelditu egingo dira, euren aulkietan esertzeko.)

EMAKUME 2: Hara!

EMAKUME 1: Zer?

(EMAKUME 2 isilik geldituko da. Dagoeneko ahaztu zaio zer esan behar zuen.)

EMAKUME 1: Hara, zer?

EMAKUME 2: Hara zer, zer?

EMAKUME 1: Zergatik esan dun «hara»?

EMAKUME 2: Eta nik zer zakinat! Ez iezadan builarik egin!

(EMAKUME 1ek hasperen egingo du, bere buruari «ez din merezi» esanez bezala, eta isilik geldituko dira berriz.)

EMAKUME 2: Hara!

EMAKUME 1 (*erdi histeriko*): Zer? Zer da? E?!

EMAKUME 2: Han atzeko mantxa beltza aldatu egin dun.

EMAKUME 1: Jakina ba, ez zelako zuhaitz bat!

EMAKUME 2: Baina hori ez dun posible.

EMAKUME 1: Zer ez da posible?

EMAKUME 2: Gauzak aldatzea.

EMAKUME 1: Nola ez dela posible? Eta gu, zer, ja hamar enpasterekin jaio ginen, edo zer?

EMAKUME 2: Ba Karmelek beti esaten zinan badena badela, eta ezin dela ez izan.

EMAKUME 1: «Badena badun, eta ez dun besterik», esan nahiko dun.

EMAKUME 2: Hori esan nahi izango banu, hori esango ninan, eta ez besterik. Ez dun uste?

EMAKUME 1 (*nahastuta*): Baina orduan, zer arraio esan nahi huen?

EMAKUME 2: Ba existitzen dena beti existituko dela.

EMAKUME 1: Baina horrek ez zaukan ez hanka eta ez bururik.

EMAKUME 2: Baietz ba! Begira hor aurreko itzal horri, adibidez. Duela gutxi, zuhaitz baten forma zeukanan, orain pertsona bat zirudin. Orain pertsona bat badun, zer gertatu dun lehengo zuhaitzarekin? Eta orain ikusten dugun pertsona, lehen ez zunan existitzen. Nola sortu daiteke zerbait ezerezetik?

EMAKUME 2: Ba ez zakinat, gauzak aldatu egiten ditun.

EMAKUME 1: Tira, hori ere egia dun. Karmele bezala.

EMAKUME 2: Hi, Karmele ez dun aldatu, e.

EMAKUME 1: Ez, Karmele aldatu egin diten.

EMAKUME 2: Aldatu egin *din*.

EMAKUME 1 (*hasperen triste bat eginez*): Ai, Maritxu. Batzuetan, zilarrezko bandeja batean eskaintzen dinagu gure burua.

EMAKUME 2: Karmele gaixoa. Burdinazko bandeja batean bizi zunan.

(*Isilunea.*)

EMAKUME 1: Maritxu, polita al nagon?

EMAKUME 2: Ez hago polita, hi polita haiz.

EMAKUME 1: Ez zakinat ba... Lehentxeago ispiluan ikusi naun, eta itsusi nengoela iruditu zaidan.

EMAKUME 2: Ba orduan, ispiluak engainatu egin hau.

EMAKUME 1: Inbidiatan egongo zunan.

EMAKUME 2: Inoiz pentsatu al dun garai batean jendea bere aurpegia nolakoa zen jakin gabe hiltzen zela?

EMAKUME 1: Bueno, uretan edo ikus zezaketen.

EMAKUME 2: Baina uretako islak ere ez ditun argi eta garbi ikusten. Marrazki bidez igual...

EMAKUME 1: Tira, guk geuk ere ez zakinagu, argi eta garbi, nolakoa den gure aurpegia.

EMAKUME 2: Hik jakin beharko huke, egun osoa ispiluaren aurrean ematen dun eta.

EMAKUME 1: Hala ere. Hik askoz ere hobeto ezagutzen dun nire aurpegia nik neuk baino, ziur nagon, ze hiri erakutsitako aurpegiak eta nire buruari ispilu aurrean erakutsitakoak ez ditun berdinak. Adibidez, hau (*aurpegi arraro bat jarriko du*) egiten dudanean, nik imajinatu bakarrik egin zezakenat hi zer ari haizen ikusten. Eta, seguruenik, ikusten ari haizena guztiz desberdina dun.

EMAKUME 2: Bai horixe, ispiluek engainatuta bizi gaitun.

EMAKUME 1: Ez, Maritxu. Gure imajinazioak engainatzen gaitin.

(Bat-batean EMAKUME 1 asaldatu egingo da.)

EMAKUME 1: Hi, hi!

(EMAKUME 1 kotxetik aterako da. EMAKUME 2k jarraitu egingo dio.)

EMAKUME 2: Zer?

EMAKUME 1: Ikusi al dun hori?

EMAKUME 2: Zer?

EMAKUME 1: Zapelatz bat pasatu dun han atzetik!

EMAKUME 2: Zapelatz bat?

EMAKUME 1: Ez al dun ikusi?

EMAKUME 2: Ez, joe, ez dizkinat betaurrekoak ekarri.

EMAKUME 1 berriz asaldatuko da.

EMAKUME 1: Hi, hi! Ikusi al dun hori?

EMAKUME 2: Ikusi, zer?

EMAKUME 1: Untxi bat sartu dun hango sas-traketan!

EMAKUME 1 (*EMAKUME 2ri zerbait aurpegi-ratu nahian bezala*): Hori ere ez al dun ikusi?

EMAKUME 2 (*lotsatzen hasita*): E, ba ez... Esan dinat ez ditudala betaurrekoak ekarri...

(EMAKUME 1 berriz asaldatuko da.)

EMAKUME 1: Hi, hi! Ez al dun ikusi...?

EMAKUME 2 (*ikusi ez badu ere, argi eta garbi erantzungo dio, gaizki ez gelditzearren*): Bai, oraingoan bai, ikusi dinat.

EMAKUME 1: Eta, ikusi badun, zergatik zapaldu dun kaka-mokordo hori?

EMAKUME 2 (*hanketara begiratuko du*): E? Aj, kaka!

(EMAKUME 2 makurtu egingo da zapata garbitzera, eta gutun bat topatuko du hari itsatsita.)

EMAKUME 2: Hara! Hi, begira zer topatu dudan!

EMAKUME 1: Zer dun?

EMAKUME 2: Ba, gutun bat! (*Maleziaz, mendekuz*) Ez al dun ikusi edo?

EMAKUME 1: Ea, ea, irakurri ezan!

(*Kotxean sartuko dira, eta gutuna irakurriko du EMAKUME 2k.*)

EMAKUME 2: *Biziraun* hitzak heroismo-kutsua du. *Biziraun* duen emakume bat, zera da: bere bizitza arrisku batetik salbatzea lortu duena.

Niretzat hitz tristea da *bizirautea*. Benetan *bizi* ez naizela sentiarazten didalako. *Biziraun* egin dudala, hiri erdian zementu artean landatutako zuhaitza banintz bezala, sustraiak hazteko lekurik gabe, argi eta haize freskorik gabe.

Bizirautea dugunok gure beharrak mugatzen ditugu, eta gero eta gutxiagora ohitzen gara, bizitzaren fotokopia txar bat baino ez bagina bezala.

Guztiok behar ditugu maitasun-harremanak, nolabait esateko, eguneko hiru maitasun-platerkada. Baina *bizirautea* dugunok koilarakada bakarrek in konformatzen gara.

Bizirauten dugunok baditugu gure defentsarako mekanismoak; adibidez, geure buruari ipintzen diogun anestesia moduko bat, sufrimendutik deskonektatu eta mina lurperatzen duena, aurrera egin ahal izateko. Nahiago izaten dugu gure bizitzari kanpotik begiratu, pelikula txar bat baino ez balitz bezala.

Biziraute umiliagarri honek haztea eragozten digu, atrofiatuta uzten dizkigu poz, alaitasun eta satisfazioak.

Ez zara gai ikusteko behartuta zauden etorkizun hau berez ez dela zuri dagokizuna. Zeure burua gorrotatzen duzu, behar duzun maitasuna zure buruari emateko gai ere ez zarela, eta beste inork ere ezingo dizula eman sinestera iristen zarela.

Ni ere bizirautea ohitu naiz, eta jada ez dakit bizitzen, errutinak eta pasibitateak ez didate bidea ikusten uzten. Min, dezepzio eta konfiantza faltazko baso batek irentsi nau.

Baina badakit badagoela hau baino bizitza hoberik. Non, ez dakit, baina seguru zugandik urruti dela. Nola bilatu ere ez dakit, baina hobeto nabil bakkarririk, zure atzetik baino.

Inoizko existentziarik higuingarriena opa dizut, maitea.

Sinatua, K.

EMAKUME 1: K?

EMAKUME 2: Bai, K batez sinatzen din.

EMAKUME 1 eta EMAKUME 2 (*K-rekin hasten diren izenen bila hasiko dira*): K... K... K...

EMAKUME 1: K... K... K... Kaka! Ez zaidan inor ezagunik burura etortzen!

(Horretan arituko dira pixka batean. Bat-batean urrutira begiratuko dute, mugimenduren bat antzemandan.)

EMAKUME 1: Hi, hi! Ikusten al dun emakume hori? Korrika guregana datorrena?

EMAKUME 2: Bai. Nor dun?

EMAKUME 1: Ez zakinat.

EMAKUME 2: Seguru gure buruak engainatu egin gaituela.

EMAKUME 1: Ez dun inor izango.

(Belarria zorrozten dute.)

EMAKUME 2: Zerbait esaten ari dun. Zer dio?

EMAKUME 1 (*entzuteko keinu eginez*): «Karme-
mele naiz», uste dinat.

EMAKUME 2: Karme-? Nor dun Karme-?

EMAKUME 1: Ez zakinat, ez dinat Karmelerik
ezagutzen.

EMAKUME 2: Bat bai, gure Karme-.

EMAKUME 1: Ostras, Maritxu! Harekin geldi-
tuta gauden gainera. Eta berandu dun.

EMAKUME 2: Goazen ba!

EMAKUME 1: Eta hor aurreko andre ero hori?

EMAKUME 2: Ba! Joan dadila antzarrak ferra-
tzera. Orain Karme-ek behar din gure
laguntza.

*(Kotxea zarata handiarekin martxan
jarri eta joan egingo dira.)*

AMAIERA

Hitzostea

Non galdu garen jakiteko balio duen mapa

Oier Guillan

Eta Karmele? antzezlanak ikusi nuen lehen aldian (bost edo hamar edo zazpi edo hogeitaz aldiz ikusi dut ordutik) pozak hartu ninduen, modu kezagarri batean. Antzezlanak hasi orduko lotu nuen Samuel Beckett eta haren *Godoten esperoan* ezagunarekin. Hura izan zuten abiapuntu Samara Veltek, Ainhoa Alberdik eta Iraia Eliasek beren kezka propioak taularatzeko orduan.

Kezka pozgarria, edo poz kezagarria, sentitu nuena.

Absurduaren ezaugarriak azaleratzen ziren etengabe *Eta Karmele?*-ren oholtzaritzean, publikoa hasieratik harrapatuz: behin eta berriz errepikatzen diren elkarriketak, hari narratiboaren logika apur-

tzen duten uneak eta saltoak, protagonistek elkarrekin komunikatzeko duten ezintasuna, isilune luzeak, umore sailkaezina... Eta, Godoten kasua gogora ekarrita, oholtzan etengabe presente egon arren sekula ikusiko ez dugun protagonista: Karmele.

Absurduaren teatroaren multzoan sartuak izan dira historikoki hainbat egile, haien lana eta ibilbidea etiketa bakar eta itxi batean biltzea nahikoa absurdua bada ere. Absurduaren teatroa gomutara ekartzean etortzen zaizkigu gogora Eugene Ionesco, Harold Pinter, Samuel Beckett bezalakoak, besteak beste Antonin Artaud eta Alfred Jarry aurreko egileen koordenatuetara eramanez Bigarren Mundu Gerra osteko dezepzio eta nora eza sakona. Absurduaren teatroarena ez zen mugimendu antolatua izan, Albert Camusi eta Jean-Paul Sartreri zor diote izena, baina badira komunak diren ezaugarri estetiko eta are zentzu zabal batean ideologikoak ere, haietako asko *Eta Karmele?* antzezlanean topa daitezkeenak.

Horregatik poza, horregatik kezka.

Poza gizartearen zentzugabekeria agerian uzten duen teatro mota bat bizirik ikusi nuelako. Asko dira egun absurdua-

ren koordenatuei atxikitzen zaizkien teatro-gile eta -lariak, oraindik pil-pilean daudelako komunikatzeko ezintasuna, giza kurdeltasunaren presentzia, gizartean antolatutako pertsonen kezken zentzugabekeria eta ipar-gabezia adierazteko beharra. Poza beraz, absurduaren bitartez umorea tresna baliagarria begitandu zitzaidalako, egungo gizartearen argi-itzalak azaleratzeko orduan. Kezka, gizarteko nora eza eta zentzugabetasun hori sakonki errotua dugulako oraindik ere. Poza, absurduak ezintasunaren erraietara jotzen badu ere bere helburua ekintza delako beti, ezintasuna adieraztea bera badelako jarrera bat. Eta hari horretan nabarmena da *Eta Karmele?*-ren azpian dagoen zorigaitzeko zirkulua, emakumeei eta batez ere guztioi dagokiguna, bortizkeriaren itzala dakarkiguna, historia bezain luzea. Ba ote zentzugabekeriaren ikur gorenagorik, amaitu beharreko mundu gerra luzeagorik, gizartearen ispilu zorrotzagorik? Bete-beteen asmatu dute *Eta Karmele?*-ren egileek umore absurduaren zartadetan kokatuta egunerokotasuna asintzen digun gatazka.

«Saiatu. Porrota. Ez dio axola. Berriz saiatu. Berriz porrota. Porrot hobea egin», esaten zuen Beckettetik. Hori bera da *Eta*

Karmele? antzezlaneko sortzaileek egin dutena, beren porrota behin eta berriz errepikatu, behin eta berriz saiatu, beti porrot hobeagoen bila. Gutxi izango dira euskal antzerkiaren historia idatzi gabean hainbeste lekutan, hainbeste aldiz egin diren antzezlanak. Aktoreek publikorik anitzenak ikusi dituzte aktoreek protagonisten nora ezaren, dirdiraren, izuaren eta itzuli infinituen liluran harrapatuak.

Obraren une batean protagonistek mapa bat hartzen dute esku artean. Mapa ederra izan liteke liburu honetako testua ere: mapak ez dutelako soilik bidea aurkitzeko balio; mapak non galdu garen jakiteko ere balio dute.

Beraz, ez dadila inoiz etorri. Ez dezagula ezagutu. Ez dugu haren berri izan nahi. Jarrai dezala inon ez Karmelek, luzez. Gertu bezain urrun. Hala oholtzan, nola pape-rean.

Samara Velte

Zarautzen jaio zen 1991n; behin eta berriro erbesteratzen saiatu arren, beti leku berera itzultzen da ezinbestean. Toki gehienetan lekuz kanpo sentitu, eta antzerki lokaletan errefuxiatu zen nerabezaroan; txikitako irakurzaletasunarekin nahastuta, hor hasi zen gidoiekin esperimentatzen, berak eza-gutu nahi lituzkeen pertsonaiak eta eduki nahi lituzkeen elkarrizketak asmatzen.

2008an, batxilergoko bigarren mailan, Ainhoa Alberdik eskatuta idatzi zuen *Eta Karmele?*, inguruan entzundako bitxikeriak eta elkarrizketa absurduak gordetze-ko ohiturari behingoz probetxu pixka bat ateraz. Jolas gisa planteatu zuen; orduan susmatu ere ez zuen egiten lau urte geroago oraindik esku artean izango zuela.

Gaur egun Ikus-Entzunezko Komunikazioa ikasten ari da, eta baita ikusten eta entzuten ere. *Karmele*-rekin harreman arraroa du, iruditzen baitzaio bietako bat gehitxo aldatu dela bestearekin alderatuta. Samarak, behintzat, antzerkia nahiko utzita dauka, baina idazten jarraitzen du, *Berrria* egunkarian ari baita lanean. Karmele, berriz, auskalo zertan dabilen.

argitaletxea **edo!**

Euskara. EDO!-k euskarazko lanak argitaratuko ditu.

Autofinantzatua. EDO! diru irabazi asmorik gabeko egitasmoa da. Litekeena da lan batzuk ordaindu behar izatea, baina ahalegina egingo du bazkideen borondatezko lanean oinarritzeko.

Borondatezko lana. EDO! Borondatezko lanean oinarritzen da; bazkideak eta lankideak dira proiektua bultzatzen dutenak, eta harpidedunak dira proiektuaren oinarria.

Adostasuna. EDO! adostasunean oinarritzen da. Adostasuna da talde lanaren oinarria, eta prozesuek eskatzen duten erritmoen arabera lan egin nahi du.

Edukiak. EDO! liburua eta literatura merkantziaren logikatik ateratzen saiatuko da. Edukiei jarriko die arreta, salmentari beharrea.

Gizarte eragile. EDO!-k zerbitzu publiko gisa ulertzen du bere lana. Kultur eragile soilik ez, gizarte eragile ere izango da.

Pentsamendu kritikoa. EDO! pentsamendu kritikoa eta elkarrizketa sustatzeko tresna izango da.

Independentea. EDO! independentea da alderdi politiko, gizarte mugimendu, erakunde publiko eta kultur industrietatik. Diru laguntzak onartuko ditu, laguntza gisa, proiektuaren printzipioak eta lanak baldintzatzen ez dituzten neurrian.

Kalitatea eta seriotasuna. EDO!-k egiazko edizio lana egingo du argitaratutako lanekin eta publikazio berme guztiak emango dizkio egileari.



Bi emakume auto baten barruan, Karmeleren zain. Inoiz iristen ez den Karmele, behinola mantxa batek jazarri zuen Karmele. Absurduaren koordinatuetan koka genezake antzezlan hau: bizitza bezain absurdua den umorea, ezintasunari aurre egiteko balio duena.